

## Mondragon Goi Eskola Politeknikoko Lanbide Heziketako ikasleak Europako FTC robotika txapelketan

2015/03/17

Mondragon Goi Eskola Politeknikoko Lanbide Heziketako 13 ikaslek osatzen dute Robotek taldea, 3 tutoreekin batera. Talde horrek First Tech Challenge robotikako nazioarteko lehiaketan hartuko du parte datorren martxoaren 27-28 bitartean, Eindhoven-en (Holandan). Taldean honako titulu hauetako goi mailako heziketa zikloetako ikasleak daude: fabrikazio mekanikoko diseinua, robotika eta automatizazio industrialak, eta sistema elektrotekniko eta automatizatuak. Gainera, Euskaditik joango den talde bakarra izango da. Parte-hartzaileen artean, estatuko eskualde batzuetako eta beste herrialde batzuetako, hala nola Holandako, Errusiako eta Alemaniako, taldeak daude. Robotek taldeak duela bi urte txapelketa hau irabazi zuten eta robot-diseinurik onenaren saria jaso zuten. Horri esker, Amerikako Estatu Batuetan egin zen munduko finalean parte hartu zuten. Laz finalerditan kanporatu zituzten eta aurten ere, titulua berreskuratzeko asmoz dihoaz.

First Lego League (FLL) txapelketa ezagunaren goi kategoria da First Tech Challenge (FTC). Robotikako nazioarteko lehiaketa hori 18 eta 23 urte bitarteko ikasleei zuzenduta dago, eta 50 herrialdek eta 2.300 taldek baino gehiagok hartzen dute parte. Parte-hartzaileek robot bat diseinatu, fabrikatu, muntatu eta programatu behar dute, era autonomoan nahiz telegidatuan lan egiteko gai dena, urtero finkatzen diren joko-arauak oinarritzat hartuta. Besteak beste honako balio hauek sustatzea da txapelketaren helburua: ikaslearengan ekimena, sormena eta elkar laguntasuna, eta gizartearengan bokazio zientifiko teknologikoenganako sustapena.

Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren taldea honako hauek babesten dute: Danobat Group, Mondragon Assembly, Fagor Automation eta Mondragon Taldea; eta Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako Lehendakariordetzaren lankidetzaren lankidetzak izan du.

